

iruner

197. zenbakia. 2011ko urria




“Datorren urtean Udalak inbertsio gutxiago egingo du”



Jose Mari Castilok
Behobiko historia argazkitan bildu du



Ander Elosgi
eta Kako Aranburu,
Olinpiar Jokoetara



iruner  Zure publizitatearen leihoa

Laguntzaileak



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru
Aldundiko Gizarte eta
Erakunde
Harremanetarako
Departamentuaren
laguntza jaso du.



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailaren
laguntza jaso du.

irunero

Helbidea: Salis hiribidea, 21 - behea. 20304
IRUN. Tel: 943 63 18 78.

Faxa: 943 63 18 77

irunero@infotxingudi.com

www.infotxingudi.com

Argitaratzailea: TB S.L.

Erredakzioa

maketazioa: Ana Grijalba.

Kolaboratzailea:

Mikel Asurmendi

Zuzentzailea:

Xabier Kerexeta.

Inprimategia: Antza

Tirada: 3.500 ale

Lege gordailua: SS-230-94

ISSN: 1134-0606

Aurkibidea

4.- *Lapikoan*

- Jose Antonio Santano, Irungo alkatea

- Jose Mari Castilok Behobiko historia ekarri du argazki-liburu batera.

- Iñaki Berraondo, Bidasoako Osasun-Antolaketa Integratuko zuzendaria.

- Familia Santuaren parrokiak bere 50. urtemuga ospatzeko jarduerak antolatu ditu.

15.- *Santiagotarren sekulako denboraldia*

19.- *Bi hitzetan:* Berri laburrak.

21.- *Kontsumitzaileen Elkartearen aholkuak*

24.- *Kuttun gabinete psikopedagogikoa*

Interesa

26.- *Eleak iruten.*

27.- *Lerroz lerro.* *Hutseaniko hazkurria*

Joxemiel Bidador

28.- *Kultur Agenda*

30.- *Gazte Informazioa*

Jose Antonio Santano, Irungo alkatea

“2012an inbertsio gutxiago egingo dugu”



PSE-EEK gutxiengoa izaki eta gobernu-soziorik gabe ekin dio Jose Antonio Santanok agintealdi berriari. Kinka ekonomikoak eskatzen duen batasunak bultzatuta, alderdiekin gaien inguruko adostasun zabalak lortzea du helbururik behinena. Horietako bat udazkenean mamituko den 2012ko aurrekontua da, aurtengoa baino pixka bat eskasagoa izan litekeena.

- Zein da Irunen egoera ekonomikoa?

Irungo ekonomiak zenbait sektoretatik edaten du. Garraioarenak krisi latza jasan du.

Merkataritzari dagokionez, eutsi egiten diola iruditzen zait. Industriak sendotasuna agertu du, batez ere esportatzaileak.

Langabezia-tasa altua bada ere, enplegu-tasa ere altua dugu Irunen, ia-ia 27.000 pertsona lanean ari baitira. Horrek esan nahi du ia familia guztiek soldata bat eduki dezaketela.

- PSE-EEK gutxiengoa dauka, eta kinka ekonomikoa, latza: nola gobernatuko duzue?

Alderdi guztientzat atek zabalik utzi nahi genituzke. Irunen badira kontu oso garrantzizkoak, gehiengo zabal baten babesaz aurrera atera nahi ditugunak. Alderdiaren batekin, PPrekin adibidez, gobernu hitzarmenak eman daitezke; baina garai latz hauetan adostasuna da behar bultzatu behar duguna.

- Udal baten diru sarrerarik handiena Aldundiaren ekarpena da. Zer nolako aurreikuspenak ditu Irunek?

Oraindik ez dakigu zehatz zenbatekoa izango den, baina aurreikuspena ez da ona: guk kalkulatu genuena baino hiru milioi eta erdi gutxiagoa.

- Murrizketen argitan zer aurrekontu izango dugu datorren urtean?

2012ko aurrekontua aurtengoa baino pixka bat murriztagoa izan liteke. Kontuan hartu behar da Aldundiari jada ordaintzen ari gataizkion zorrari aurten sor daitekeena gehitu beharko litzaiokeela. Sartzen den diru kopurua gastatuko dugu, zorpetu gabe, alegia.

Argi daukagu heldu den urtean inbertsio gutxiago egingo dugula, baina gogora ekarri nahi dut zenbait urtetan ikaragarriak izan direla.

Hauexek izango dira lehentasunak:

- Zerbitzuen maila ona mantentzea: garraioa, garbiketa...
- Enpleguarekin eta ekonomikarekin loturiko politikak.
- Gizarte politika: egoera txarrean daudenei laguntzea.
- Etxebizitza.
- Kulturaren eta hezkuntzaren alorreko zenbait



ekipamendu.

- Aurrezteko, Udal Musika Patronatua eta Kirolena desagertuko dira.

Zerbitzuren bat mankomunatzeari pentsatu du Udalak?

Bi patronatu horien egiturak Udalak bere gain hartuko dituzte, baliabideak optimizatuko ditugu. Gainera, patronatuetak langileen soldatak handiagoak dira udalekoenak baino.

Zerbitzu gehiago mankomunatzeari udal txiki-tzat aukera egokia dela uste dut; ez, ordea, Irunen neurriko hiri batentzat.

Halere, gure gastuak murrizteko beste udal batzuekin batera abian jar genitzakeen ekimenak badirela uste dugu: esaterako, erosketa-zentral bat eratzea, elektrizitatea eta halako zerbitzuen eta produktuen kostoa merkatzeko.

- Urtetan udalek eskatu duten Udal Legea tramitatzen ari da. Zer onura ekarriko dio Iruni?

Udalen eskumenak ezartzen dituen legerik ezean, 1979az geroztik horietako batzuk gure gain hartu behar izan ditugu, baina legokiekeen aurrekonturik gabe. Udal Legeak hau guztia arautzea nahi dugu, eta finantzazioa erabaki-tzen den organoetan parte hartu.

Autonomia Erkidego txikia da gurea, administrazio gehiegi dituen. Hala, nik uste dut udalak indartu behar direla.

Jose Mari Castillok Behobiko historia argazkitan bildu du

Luis de Uranzu
Kultur Taldeak,
Irungo Udalaren
laguntzaz,
Jose Mari Castilloren
Behobia: Imágenes de un barrio con historia / Historiaz beteriko auzoa izenburuko lana argitaratu du. Behobiko historiaren azken 150 urteei buruzko monografikoa da, 568 argazkitan laburbildurik. LUKTren *Ikerlanak* bildumaren XIII. liburua da.



Liburuaren azalera XIX. mende Erdialdeko grabatua ekarri da. Lehen planoan, Gazteluzar.

Liburua apailatzeko, egileak 568 irudi hautatu ditu



Arenas Carrillo Behobiko enpresa garrantzitsua izan zen urte askoan.

Aurkezpen ekitaldian Jose Antonio Santano Irungo alkateak, LUKTko ordezkari eta udal artxibozain Jose Monjek eta lanaren egileak parte hartu zuten. Alkateak Jose Mari Castillo zoriondu zuen, “neurri handi batean gure hiriaren historia islatzen duen auzoaren historia irudien bidez, modu atseginean eta ongi dokumentatuta” egin duelako. Halaber, horrelako obrak plazaratzeko eta hiritar guztiok goza dezaten LUKTk aurrera eramaten duen lan garrantzitsua goraiatu zuen.

25 urteko lana

Liburua apailatzeko, egileak azken 25 urteotan zehar bildu dituen argazki kopuru ikaragarria baliatu du. Guztira 510 orrialdeko argitalpena da, 568 argazki hautatu eta euskaraz nahiz gaztelaniaz idatzitako testuez osatua. Castillok liburuaren alderdi grafikoa nabarmentu zuen, hain zuzen ere. “Historia-liburu gutxik orrialde kopurua baino argazki gehiago dituzte; izan ere, honetan historia irudien bidez kontaktzen baita”. Argazkiak medio, auzoko historiaren alderik bitxienak eta garrantzizkoenak helarazten dira, argazki-oin laburrez eta esanahia azaltzen duten testuez lagunduta. Irudietan 150 urteko gorabeherak erakusten dira, XIX. mendeko grabatuetatik hasita gaur egungo



Behobiko karabineroen garita, eta emazainarena (1910 urte inguruko argazkia).

argazkietaraino.

Auzoko hirigintza eta bizitza

Hamahiru ataletan banatutako lana da da: auzoko hirigunea, Aduana, Bidasoa ibaia, auzuneak, baserriak, Faisaien uhartea, San Martzial, Txikito tren, jarduera ekonomikoa, pertsonaiak, kirolak, lehena eta oraina alderatzeko irudiak, eta kaleak.

Atal nagusi hauetako bakoitzean hainbat bitxikeria eta berri txertatu ditu egileak, halako leku interesgarriaren iragana azaltzeko. Nabarmentzekoak dira, besteak beste, II. Karlistada, merkataritza, Bihotz Santuaren eliza, eskolak, uholdeak, jaiak, kirol ekintzak, garitak, errege-bidea, Gazteluzar, Blaiako hilerria, Gerra Zibila, kontrabandoa, karabineroak, Kanporagaien Alkatetza, gabarrak, arrantzarako otarrak...

Jose Mari Castillok, zenbait testu lantzeko, honako kolaboratzaile hauek izan ditu lagun: Abdon Frances -zendua-, Eduard Rosset, Patxi Garcia, Gurutz Albisu eta Josetxo Iraundegi.



Liburuaren egilea, Irungo alkatea eta Jose Monje LUKTko ordezkaria, idazlanaren aurkezpen ekitaldian.

Behobia: Historiaz beteriko auzoa salgai dago, LUKT kideentzat, 17 eurotan, eta gainontze-koentzat, 25 eurotan.

“Behobia historia aberatsena duen auzoetako bat da”

Emaztea behobitarra du, eta Jose Mari bera auzokide bilakatu zen. Pisuzko bi arrazoi horien aurrean nola aukeratuko zuen, bada, *errepublika independentea* ez den beste auzo baten historia grafikoa prestatzeko? Horiexek dira egileak aipatzen dituen lehenengo bi zioak; baina jarraian osatzen du arrapostua Behobia Irungo historia aberatsenetako bat duen auzoa dela adieraziz. “Kokaleku estrategiko izaeratik datorkio historia zabala izatea. Lau iturri nagusi azpimarratuko nituzke: muga, uhartea, gaztelua eta San Martzial”.

Halako argazki kopuru itzela bildu ostean ez da ariketa erraza baten bat nabarmentzea. Halere, burura etortzen zaizkionak aletu dizkigu: “Benetan bitxiak

dira bi saltzailerrenak, biak ere orga eta guzti dutela: bata fruitu-saltzailea eta bestea souvenirrena. Gogoan ere badut kontrabandista bat bilurtuta agertzen den argazkia. Azkenik, 1910. urte inguruko bat erreparatzeko modukoa da: bertan karabineroen garita azaltzen da eta haren aldamenen *matrona* idazkuna daraman beste bat. Muga igaro nahi zuten emakumeek soinean zerbait ote zeramaten egiaztatzeko miaketaz arduratzen zen”.

Jose Mari Castillo ez da argitalpenen mundura iritsi berria; aurretik hainbat liburu grafiko plazaratuak ditu, guztiak Iruni buruz. “Argazkien bidez historia errazago irakasten da, bereziki gazteei, irakurtzeko ohitura gutxiago dutelako”.

irunero aldizkaria non eskura daiteke?

ANAKA

ANAKAKO KASINOA
KUTXA
BURDINDEGIA (Kutxaren
aldamenean)
ANAKAKO AUZO ELKARTEA
BIDASOAKO OSPITALEA

BELASKOENEA:

TXIMISTA TALDEA (Parrokia)
BELASKOENeko AUZO
ELKARTEA

ARBES eta PALMERA-MON- TERO

VICTORIA TABERNA
(Altzukaitz)
LA AGRICOLA
PALMERAKO HAINBAT
KAFETEGI-TABERNATAN

BEHOBIA eta ARTIA

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIA-
LA
TRINKETE TABERNA (M^a
Juncal Labandibar kalea)
AZKEN PORTU KIROLDEGIA
KUTTUNA HAUR ESKOLA
(Artiako Caro Baroja plaza)

ERDIALDEA

HERRI JAKINTZA (Nafarroa
hiribidea)
BRASIL gozo-denda
ELKAR liburu-denda
OSKARBI Liburudenda
EUSKADIKO KUTXA (Kolon)
KUTXA (Kolon)
JUBILATUEN ETXEA (Luis
Mariano)
VIRGINIA kafetegia
SIRIMIRI taberna
KUTXA (Gipuzkoa hiribidea)
KIOSKO 33 (Argentinari
Errepublikari)
HAZ-SAC

FOTOKOP (Foruen karrika)
GAZTE INFORMAZIO BULE-
GOA (Foruen karrika)
EUSKARA Arloa (Foruen karri-
ka)
ACUBI (Foruen karrika)
IZOKINAREN KOFRADIA
(Kale Nagusia)
ARANO taberna
MANOLO taberna
SARGIA taberna
AEK Euskaltegia
ARTXIBOA eta LIBURUTEGIA
MENDIBILGO MUSIKA
KONTSERBATORIOA
ARTALEKU KIROLDEGIA

DUNBOA

TOMA PAN Y MOJA (S.
Pedro)
OSASUN ZENTROA
KUTXA (Nafarroa hiribidea)
ERKA (Salvador Etxeandia)
ALDABE paper-denda

LAPITZE

ANBULATORIOA
AMAIA KZ eta Pio XIIko kios-
koa.
OGIBERRI (Serapio Mujika)
EUSKADIKO KUTXA (S.
Mujika)

MEAKA

MEAKAKO Bizilagunen
Elkartea
ERROTAZAR
OLA Sagardotegia

OLABERRIA

ESTEBENEA taberna
LABEKO ETXEA jatetxea

ALDE ZAHARRA

UDAL EUSKALTEGIA
ALDE ZAHARREKO BIZILA-

GUNEN ELKARTEA
(Larretxipi)
EKT (Larretxipi, 12)
KURPIL KIROLAK (Peña k.)
HAZIA taberna (Peña kalea)
ESKINA taberna
EUSKADIKO KUTXA
(Urdanibia)
KULTURA Arloa
(Ospitale Zaharra)

ANTZARAN

NEKANE paper-denda
Lekaenea

SAN MIGEL

KOLON burdindegia
(Hondarribia kalea)
KUTXA (Zubiaurre)
EUSKADIKO KUTXA
(Zubiaurre)
SAN MIGELEko AUZO
ELKARTEA (Luis de Urantz,
24)
ATREZZO (Geltoki kalea)

SANTIAGO

AGUIRRE okindegia (Junkal)
CANON (Santiago k.)
SANTIAGO AUZO ELKARTEA
BIKOTE (Erromes plaza)

URDANIBIA

TANDEM kafetegia

KATEA

KATEKO AUZO ELKARTEA

LARREAUNDI

OKINDEGIA (Eguzkitzaldea k.)
AUZO ELKARTEA
(Iñigo Loiolako)
LARRARTE Harategia
(Eguzkitzaldea, 17).

Iñaki Berraondo. Bidasoa Osasun-Antolaketa Integratuko zuzendaria

“Bidasoako osasun zerbitzuetan ez da murrizketarik aurreikusten”



Iñaki Berraondo aurtengo urtarrilaz geroztik OSI-OAI delako egituraren zuzendari-kudeatzailea da. Haren barne daude Bidasoako ospitalea eta eskualdeko lehen mailako arreta-zerbitzuak.

- Nolakoa da bidasoarren osasuna?

Bidasoarren osasuna Euskadiko biztanleenaren parekoa da. Erakusleak onak dira; oro har, esan liteke osasuntsuak garela.

- Zer-nolako faktorek dute eragina,

maila jaso hori izateko?

Zerikusia dute ohitura onek; gero eta jarduera

fisiko gehiago egiten dute biztanleek, gero eta gutxiago erretzen dute eta dieta mediterranea deritzona jaten dute.

Bestalde, eragina dute, noski, gure osasun zerbitzuek, Europako onenetarikoak baitira.

- Osasun ona dugu; beraz, gure bizi-

itxaropena gora doa. Horrek zer ondo-

rio dakar?

Biztanleen batez besteko adinak gora egiten duen heinean gaixotasun kronikoren bat pairatzen dutenen kopurua ere handituz doa. Osasun Sailaren erronka, hain zuzen, sistemak errealitate horretara egokitzean datza. Horren lekuko, esaterako, dagoeneko martxan jarri den etxeko ospitaleratzea.

- Zein da Bidasoako Ospitalearen jardueraren balantzea eta zer ondorio atera liteke?

Larrialdietako kasuen kopurua mantendu da, baita ospitaleratzeak ere, aipatu etxeko ospitaleratze zerbitzuari esker.

Logikoa denez, neguan jarduerak gora egiten du.

- Krisiak murrizketak ekarri ditu.

Nolako eragina izan dute

Bidasoaldean?

Langileen soldatak murriztu dira; ez, ordea, zerbitzuak. Baliteke aldaketaren bat egitea; adibidez, laborategian aztertzeke jasotzen diren laginetakoren bat Donostiakora bidaltzea.

Alor guztietan eraginkorrakoak izaten saiatzen ari gara, eta baliabideak optimizatzen.

- Beharrak badira. Zabalduko ote da zerbitzuren bat?

Urteak daramatzagu osasun zentro berri baten galdean; baina gaur egun, kinka ekonomikoa tarteko, proiektu hori ezin da gauzatu.

Hondarribiko anbulatorioaren eraikin berria 2012ko hasieran bukatuko dute.

- Bidasoako Osasun-Antolaketa Integratua izeneko egitura berriak zer aldaketa ekarri ditu?

Joan den urtarrilaren lehen egitura berria ezarri zen. Ordura arte lehen mailako arretak zuzendaritza propioa zeukan eta ospitaleak beste bat. Orain zuzendaritza eta helburu berberak dituzte bi egiturok, ahalik eta optimizazio handiena



lortu aldera. Horren ondorio zuzena izan da orain medikuen arteko komunikazioa hobetu dela. Hartara, gaixoaren jarraipena egiteko unitatea sortu dugu. Gainera, gaixotasun kronikodunek ospitaleratzea behar dutenean beti espezialista berberak tratatuko ditu, arretarik onena izan dezaten. Gaixoa etxeratzean, erizain batek lotura lana egiten du, lehen mailako medikuak informazio guztia izan dezan.

- Teknologia berrien erabilera oztupoak sortzen ari da?

Historia klinikoak digitalizatu ditugunez, lehen arretako medikuek edonondik kontsultatzea badute. Hortaz, informazio gehiago dute eta akatsen arriskua txikiagoa da.

Web eta telefono automatizatu bidezko hitzordu sistemarekin hasieran eragozpenak sortzea normala da, baina argi dago etorkizunak hortik jotzen duela.

Familia Santua parrokiaren 50. urtemuga

Urrezko ezteiak ospatzeko kultur egitaraua antolatu du



Maria Pilar Esnal, erakusketaren antolatzailea; Jokin Mitxelena, erretorea, eta Mertxe Tranche, hizlaria.

1961. urtean Irungo Familia Santuaren parrokia jaio zen, baliabide apalekin, Gerra Zibilak zauritutako Irun batean, langile etorkinen uholdearen ondorioz eraikitzen ari zen Pio XII.a auzoan. Urrian 50 urte bete ditu, hainbat gorabeheraren ostean garaje bat zena barrutik eta kanpotik eliza itxura lortzeraino eraberrituta. Urrezko ezteiak betetzen diren honetan asko du ospatzeko

parrokiak. Hartara, hilabetea iraungo duen egitaraua prestatu du, historia, musika eta, jakina, erlijioa osagai nagusiak izaki.

Egitaraua

Jokin Mitxelena erretoreak ekitaldien aurkepena egin zuen. Goi mailako abesbatzek lau igandetan zehar Eukaristian abestuko dute. (Ikus egitaraua).

Urriaren 20an Mertxe Tranche irundar historialariak hitzaldia eskainiko du. Oraingo honetan artxiboko lana egina eman zaio, Maria Pilar Esnalek burutu baitu. “Hiriaren inguruko testuingurua izango da nire ekarpena”: Hizlaria Gerra Zibileko suteak erre ondoren 1961ean oraindik berreraiki gabe zegoen Irun hari buruz mintzatuko da. “Etorkin asko lan egitera iristen ari ziren



Goian, eliztar laguntzaile beterranoak. Eskuinean, behean, aurrealdea zaharberritze lanak baino lehen; goian, ondoren.

Egitaraua

Kontzertuak. 12:00etako Eukaristian abestuko dute eta, ondoren, 30 minutuko kontzertua.

Irailak 25: Easo kapera gregoriana.

Urriak 2: Betiko Ametsa

Urriak 9: Andra Mari Abesbatza

Urriak 16: Ekintza Abesbatza

Hitzaldia: Urriaren 20an, 19:45ean, parrokiaren, Mertxe Trancheren eskutik.

Erakusketa: Urriaren 8tik 23ra, 18:00etatik 20:00etara.

Ospakizun eguna: Urriaren 23an, 12:00etan, Jose Maria Setien gotzain emerituak Eukaristia zuzenduko du.

Ondoren, bazkaria Munantxo jatetxean.



garai hartan, parrokoak jende hura integratzeko beharra aurreikusituen. Zeregin hartan parrokiak funtsezkoa izan zen”.

Maria Pilar Esnalek historia laburbildu du, baita hainbat argazki eta dokumentuz osatutako erakusketa apailatu ere. Ikerketa lanean zehar bereziki deigarria gertatu zaio “eliztarrek parrokiaren aldeko lanean jartzen zuten ilusia. eta gehien behar zutenen mesederako gorputz eta arima aritzen zirela”.

Jokin Mitxelena erretorea parrokiaren garai ezberdinez mintzatu zen, lokalen inguruko egoera *kafkianoak* markatuta. “Garai hartan Irunek 30.000 biztanle zituen, hogeitun urte lehenago zituenen bikoitza. Junkaleko parrokiak hiriko bakarra zen testuinguru hartan, gehiago sortzeko beharra zegoen”. Hala, Udalak orube bat emango zuela agindu zuen; baina jabeak zituenez, ezin izan zuen. Desjabetze prozesuari ekin zion orduan; emaitzarik ez zuen lortu, ordea.

Ondorioz, behin behineko egoera urtetan luzatu zen. “Parrokiak 20 urtez alokatuak egon ziren lokaletan eduki zuten egoitza. Duela zazpi urte arte aurrealdeak etxe multzo bateko atzeko patioa ematen zuten”. Azken urratsa aldameko lokalak elizari gehitzea izan da, eta obra sakona burutu ostean, ongi merezitako itxura duina eman zaio. Erretoreak hainbat urtetan zehar eliztarrek egin dituzten ekarpenen garrantzia nabarmendu zuen, bai eta eskertu ere.

Juan Antonio Lecuonaren familiak egunkari bilduma garrantzitsua eman dio Udalari

2011ko ekainaz geroztik, Irungo udal artxiboko hemerotekan egunkari bilduma berri garrantzitsua dago, iaz zendu zen Juan Antonio Lecuona kazetari historikoaren familiak emandakoa. Guztira 336 liburukiko dohaintza da, *Gale* ezizenez ezaguna zen kazetariaren artxibo pertsonalaren zati bat, hain zuzen: Unidad (1952ko martxotik 1963ra), La Voz de España (1952ko otsailetik 1980ko otsailera) eta El Diario Vasco (1948ko laugarren hiru-hilekotik 1963ra).

Udalak eskuratu dituen liburukien artean badira Artxiborako berebiziko interesa dutenak; haiei esker, Iruni buruz idatzizko prentsan argitaratutako albiste bilduman zegoen hutsunea bete ahal izango da, batez ere 1960tik 1980ra bitartekoa, urte haietako alerik ez dagoelako.

Gaur egun orijinalak artxiboan kontsulta daitezke soilik, baina etorkizunean digitalizatu eta udalaren web orrian txertatuko dira.



La Voz de España frankistek sortu zuten 1936. urtean, *La Voz de Guipúzcoa* zenaren instalazioak konfiskatu ondoren.

Larreaundiko futbol-zelai berria egiteko obrak esleitu ditu Udalak

Irungo Udalak Larreaundiko futbol-zelai berria eta kanpoaldeko urbanizazioa egiteko obrak esleitu ditu. Lanok burutzeko 2.256.065 euro inbertituko ditu. Enpresak zazpi hilabeteko epea izango du proiektua gauzatzeko. Belar artifizialezko zelaia gaituko da, eta haren barruan zeharkako beste bi txikiago moldatuko dira. Bi eraikin egongo dira: aldagelena eta kafetegia-rena. Berrikuntzen artean aipagarria da, halaber, harmaila-gunea jarriko dela, egitura metalikoz estalita.





2011ko Bidasoa Ibaiaren Nazioarteko Jaitsiera irabazi zuten Santiagotarretako kirolariak.

Santiagotarrek sekulako denboraldia burutu dute

Santiagotarretako arraunlari eta palistek izugarrizko emaitza onak lortu dituzte ur kirolen sasoi honetan. Lehiaketa nazionale-tan zein nazioartekoetan Elkarteko hiru sekzioek maila jasoa erakutsi dute. Londresko Joko Olinpikoei begira, argi dago Ander Elosegik, Jone Otañok eta Joan Crespok parte hartzeko aukerak dituztela.

Olaizola

**Inmobiliaria
agentzia**

**Salmenta - Alokairuak
Promozio berriak - Aholkularitza**

Beraketa kalea, 17 IRUN
Tel: 943 62 65 85
API 316

www.inmobiliariaolaizola.com

Javier Martinez, “Musku”, Santiagotarretako presidentea pozez gainezka dago uda honetan eskuratutako sari uztarekin. “Denboraldi bat amaitzen denean beti uste dugu ezin hobea izan dela; baina, zorionez, urtetik urtera hobera egiten ari gara. Oraingoan bikainetik hurbil ibili garela esango nuke”.

Presidenteak nabarmendu du aurten lehiaketetan egunero batez beste hiru sekzioetako 75 kirolarik parte hartu dutela. “Hori kopuru oso handia da, eta eskatzen duen ahalegin ekonomikoa ere ez da makala”.

Ur biziak

Ur biziako palisten artean Ander Elozegi, Jone Otaño eta Joan Crespo gailendu dira. Sasoi hasieran Elozegi eta Otaño Australian hiru hilabetez trebatu ondoren, kontinente hartan jokatu zen Open-ean Elozegi txapelkunorde izan zen C-lean. Handik aurrera, norgehiagoketan puntako lorpenak erdietsi dituzte. Europako Slalom Txapelketan Anderrek laugarren egin zuen banakakoan, eta bosgarren taldekakoan. Munduko Txapelketaren 3. proban bigarren sailkatu zen. Aipatu hiru palistek Londresko aurreolimpikoan lehiatu ziren, Elosegik C-lean zortzigarren eta Crespok K-lean bederatzigarren amaitu zutela. Halaber aipatzekoak da Aitor Iribarrenek ur biziako Espainiako txapela lortu zuela sprintean eta Telmo Olazabal laugarren sartu zela taldekako proban Europako Txapelketan.

Beraz, halako palmaresaren aurrean, Santiagotarretan baikor dira Londreseko Joko Olimpikoei begira.



Aner Olazabal eta Markel Ramiro, Bidasoako Nazioarteko Jaitsierako K2 Junior kategoriako irabazleak.



Urko Zabaleta, 2011ko Bidasoako Nazioarteko Slalomeko txapelduna.



higer bidea, 6-
20280
hondarribia.
gipuzkoa
t(34) 943 64 27 12

arrokaberri@arrokaberri.com
www.arrokaberri.com





Pista olinpikoa

Santiagotarrak hiru domina ekarri zituzten etxera Espainiako Maratoi Txapelketatik. Erromako Mundu Kopan Olatz Zabalaren lorpena aipagarria da, hamargarren iritsi zen-eta. Garazi Gomez Sellako Jaitsierako irabazle izan zen K-1ean, eta Aitor Zabala, txapeldunorde C-1ean.

Arraun olinpikoa

Arraun sekzioko kirolariek Euskadiko Txapelketan urrezko 5 domina lortu zituzten. Nabarmenezkoa da Borja Portosek eta Jon Aizpialeak Espainiako Junior Lehiaketa irabazi zutela.

Nazioartean Santiagotarren zortziko batelak Londresko estropada famatuan parte hartu zuen, non mila ontzi ere lehiatzen diren. Bertan, irundarrak zegokien kategorian 80. egin zuten, 300dik gora ontziren artean.

Londresko traineru estropada ospetsuan lehiatu zen Santiagotarren zortzikoa.

Instalazio berriak, eskas jada

Santiagotarrak Kirol Elkartek dituen kide eta erabiltzaile kopurua hain da handia ezen instalazio berriak dagoeneko txiki geratu direla azaldu baitu presidenteak. Guztira 170 bazkide dira, baina haiei gehitu behar zaizkie instalazioak erabiltzen dituzten hainbat zale eta beste klubetako kideak ere. Udan zehar kopuruak are handiagoak dira, kontuan hartuta ikastaroetan jarduten duten haur eta gaztetxoak.

gesAR
gestoria ARANA
consultoría de seguros

asesoria aholkularitza
integral integrala
ingeniería ingenieritza
seguros aseguruak

Gipuzkoa hiribidea, 26.
IRUN

Tel: 943 666 050

Fax: 943 618 075

gestoria.arana@garana.com

Ander Elosegi eta Kako Aranburu, Londresko Olinpiar Jokoetara

Kako
Aranburu,
2008an
Beijingo
Jokoen ostean
lrungo
Udalak egin
zion ome-
naldian.
Eskuinean,
Ander
Elosegi,
Bratislavako
mundu txapelketako
podiumean,
irailean.



Irunek gutxienez bi ordezkari izango ditu Londresko Olinpiar Jokoetan: Ander Elosegi piraguista eta Kako Aranburu skeet modalitateko plater-tiratzailea.

Aranburuk Belgradoko mundu txapelketa irabaztean lortu du Londreserako txartela. Gainera, lehiaketan munduko errekorra berdindu zuen, huts egin gabe 125 plater haustean.



Ander Elosegi, Aranburu bezala, Beijingo jokoetan lehiatu zen. Bratislavan C1ean 5. egin ondoren sailkatu zen. Irundar piraguitak lortutako plaza berez espainiar selekzioko ontziari dagokio, hortaz, Federazioaren erabakia da Olinpiar Jokoetarako txartela Anderri ematea. Dena den, kirolari irundarrak plaza eskuratze-ko aukera asko dauka.

limpiezas
txukun
garbiketak

C/ General Bergaretxe, 4 - Local 7 - 20104 Irun, Gipuzkoa
Tel: 943 573 291 - Leire: 667 706 791 - Susana: 618 967 673
info@txukun.com - www.txukun.com

Lepantoko parkea, auzokoen olgetarako gune berria

Irungo Udalak amaitu ditu jada Lepanto parkeko obrak. Gune berriak 970.000 eurotik gorako aurrekontua izan du eta San Migel-Anaka ingurua berriro urbanizatzeko lehen urratsa izan da.

Cristina Laborda obretarako ordezkariak adierazi duenez, parkea aisialdirako eta jostatzeko gune garrantzitsu bat bilakatuko da.

Gogoratu behar da parke horren berriztapenak Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzako Sailburuordetzaren dirulaguntza izan duela, Hiriber programaren barruko urbanizatze obrak egiteko. Auzoak hobetzeko eta lehentasunezko jarduketa esleitu zaien hiri-guneetarako ematen dira dirulaguntza horiek.

Lepanto, Blas de Lezo eta Donostia kaleek mugatutako 6.615 m²-ko eremu batean egin da jarduketa. Parke



Javier Busto

berrian lorategi bat dago, bai eta haurrentzako joko-gune garrantzitsu bat eta petanka jokorako bi espazio ere. Bizikletentzako, patinentzako eta abarrentzako gune bat ere badago, bizikletentzako aparkaleku batekin eta iturri batekin. “Inguru zabal bat da, era-

bilera desberdinetako hainbat gunerekin, eta ingurumen horretako aldaketa handiaren hasiera markatzen du. San Migel-Anaka eremua garatu ahala gauzatuko da aldaketa”, adierazi du Cristina Labordak.

Elikagaien manipulatzailerak izateko ikastaroa euskaraz

El Espaziok Elikagaien Manipulatzailerak ziertagiria lortzeko ikastaroa antolatuta du, euskaraz. Noiz: AZAROAK 8 eta 9 Non: EL ESPAZIO-n, Anaka kalea, 27

DOHAINIK Izena emateko nahiz informazioa gehiago jasotzeko, deitu 943.63.31.60 telefonora.

660 haurrek parte hartu dute aurtengo Solas Jolas-en

Gurasoek programarekin oso gustura daudela adierazi dute inkesta batean

Guztira 660 haurrek parte hartu dute aurtengo Solas Jolas programan, eskolaumeen artean euskararen erabilera sustatzeko Irungo Udalak udako bi hilabeteetan antolatuta.

Aurreinskripzio garaian 792 umek izena eman zuten uztaile-rako, eta 244k abuzturako. Datu horiek jaso ondoren, Udalak 543 plaza eskaini zituen uztaile-rako eta 192 abuzturako. Matrikulazio garaia bukatuta, ordea, ez ziren plaza guztiak bete: guztira 660.

Fernando San Martín Euskara Ordezkaría pozik agertu zen Solas Jolas eba-luatzeko gogobetetze inkestaren emaitzekin. Gurasoen % 60k eman du iritzia. Orokorrean, oso gustura daude programarekin, eta bereziki hezitzaileekin eta antolakuntzarekin. Eman duten puntuazioaren batez bestekoa, 10 puntu-



ren gainean, 8,75koa izan da.

Hainbat gurasok ea zergatik ez diren ikastetxe gehiago erabiltzen galdegin dute. Euskara ordezkaría azaldu zuen eskaintza egiteko momentuan eskolen eskura-garritasuna kontuan hartu behar dela, uda aprobetxatzen baita konponketak egiteko. Horregatik, urterro

sadf

badago ikastetxeren bat erabil ezin daitekeena.

Fernando San Martinek programa burutzeko Irun Iruten elkarteak egindako lana azpimarratu zuen, elkartea baita, Udalarekin batera, arlo pedagogikoaz arduratu dena eta plangintza diseinatu eta hezitzaileak aukeratu dituen.



F / O / T / O / K / O / P

FOTOKOPIAK KOLORETAN ETA TXURI BELTZEAN, PLANOËN FOTOKOPIAK, ENKUADERNAKETAK, PLASTIFIKAZIOAK, ORDENGAILUZKO LANAK, KAMISETAK, FAX ZERBITZUA, PAPERDENDA,...

Foruen kalea, 4 - 20302 IRUN

Tel./Fax: 943 63 22 11
E-mail: fotokop@telefonica.net

Eskolako gastuak, batez beste, 796 eurokoak izango dira ikasturte honetan

2010ekoan aldean, %3 merkatu dira gurasoei seme-alaba bakoitzak ekarriko dizkien gastuak.



ACUBI Bidasoako Kontsumitzaileen Elkarteak eta KIUB Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak seme-alabeen eskola-gastuak murrizteko gurasoei zenbait aholku helarazi nahi diete.

Erabiltzaile eta Kontsumitzaile Independenteen Federazioak, FUCI-k, azterketa bat burutu du, familiei seme-alabak eskolatuak izateak sortzen dizkieten gastuak zenbatekoak diren neurtu

aldera. Horren emaitzaren arabera, ikastetxe publiko batean eskolatzeagatik ikasturte honetan, batez beste, ikasle bakoitzeko 520 euro ordaindu beharko dituzte; kontzertatuetan, 773



euro, eta pribatua aukeratzen dutenek, 1.095. Kopuru hauen batez bestekoa, iazkoaren aldean, % 2,9 merkeagoa da. Beherakada honen zergatia da krisiagatik ikastetxe pribatuek tarifak %7an murriztu dituztela. Kontzertatuen kasuan, mantendu dira; publikoei dagokionez, % 1,5 garestitu dira.

Gastuen xehetasunak

Uniformeak edo jantziak, oinetakoak barne, eskolara bueltatzeko gastuak gehien garestitzen dituen saila da. Herri ikastetxeetakoei, gutxi gorabehera, 112 euro kostatuko zaie; kontzertatutakoei, kopuru horren bikoitza, eta pribatuko-ei, 250.

Publiko zein kontzertatuetan matrikula doakoa da; baina zenbait zentro kontzertatutan ikasturte hasieran gastu batzuk ordaindu behar dira. Pribatuetan, batez bestekoa, 248 eurokoa da.

Testuliburuaren prezioa pixka bat handitu da; hortaz, 192 eurokoa izango da. Eskola publikoetan beharrezko materialaren prezioa 48 eurokoa da, eta kontzertatu zein pribatuetan, 120koa.

Bazkariaren prezioa apur bat igo da: pribatuetan hilabetero 145 euro balio du, publiko batean baino ia bikoitza, eta kontzertatuetan, 111.

Garraioa: hilerio 85 euro merkeena, eta 140, garestiena.

Gastuak autonomia erkidegoaren arabera

Autonomia erkidego guztietan ikastetxak ez ditu gastu berak ekartzen. Hala, Madril, Katalunia eta Valentzia garestienak dira. Beste muturrean kokatzen dira Kanariar Uharteak, Galizia eta Errioxa. Diferentzien arrazoia da hezkuntza finantzatzeko bi sistema daudela eta erkidego bakoitzean egin den ezarpen maila. Horren

ondorioz liburuaren berrerrabilpen sistema edota liburu-txekea delakoa ez dira nahikoa, maila guztietarako diru-laguntzarik ez dagoelako eta, bigarren kasuan, liburuaren kostu osoa estaltzen ez delako.

FUCI Erabiltzaile eta Kontsumitzaile Independenteen Federazioaren aburuz, testuliburuak autonomia erkidego orotan doan behar lukete izan.

Gurasoei zuzendutako aholkuak

Eskolarako bueltak ekartzen duen gastu handia murriztu aldera, Federazioak gurasoei ondorengo aholkuak kontuan izatea gomendatzen die:

- Autonomia erkidegoak ematen dituen diru-laguntzez gain, Hezkuntza Ministerioak testuliburuak eta material didaktikoa erosteko urteroko ematen dituenak eskatzea gomendatzen da.

- Administrazio ezberdinek garraiorako eta jangelarako ematen dituztenen inguruan informazioa biltzea.

- Eskolaz kanpoko jardueretan interesaturik bazaudete, udalen eskaintza kontsultatzea, zentro pribatuetakoena baino merkeagoak izan ohi baitira.

- Material berria erosi aurretik, begira ezazu etxean daukazuna. Ondoren, erosi baino lehen, prezioak nahiz kalitateak alderatu.

- Erosketak dibertsifikatu eta epeka egitea, mate-

**Eskolatzegatik gastuak
2011-2012 ikasturtea**

	Publikoa	Kontzertatua	Pribatua
Matrikula	0	0	248
Liburuak	192	192	192
Materiala	48	120	120
Uniformea/ jantziak	112	230	250
Bazkaria (hilero)	83	111	145
Garraioa (hilero)	85	120	140
GUZTIRA	520	773	1.095

**Eskolatzegatik gastuak
2010-2011 ikasturtea**

	Publikoa	Kontzertatua	Pribatua
Matrikula	0	0	265
Liburuak	190	190	190
Materiala	50	120	125
Uniformea/ jantziak	110	235	284
Bazkaria (hilero)	82	114	160
Garraioa (hilero)	80	115	150
GUZTIRA	512	774	1.174

rial guztia ez delako beharrezkoa lehenenego egunetik.

- Balia itzazue legeak Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako liburuetan ahalbidetzen dituen deskontuak. Beste aukera bat bigarren eskukoak erostea da.

- Ez erosi markako produktuak: %30 ere aurreztu dezakezu.

- Aurreko urteetako oinetakoak, arropa, liburuak eta materiala berrerabiltzea.

- Zure seme-alabek uniformea behar badute, balia itzazu merkataritza-gune handietako produktu multzoak: galtzerdiak, elastikoak, jertseak...

- Uniformea derrigorrezkoa ez den kasuetan, urtarrileko merkealdietara arte beharko duen arropa planifika ezazu.

- Ez egin duda belauneko edo ukalondoko adabakiak josteko orduan: arropa erabiltzen jarraitu ahal izateko modua da.

- Ahal den neurrian ez kontratatu kreditu azkarak, horrek gainzorpetzea areagotuko luke-eta.

- Fakturak gordetzea garrantzizkoa da: iltzulketak edota akatsa duten produktuei buruzko errekla-



mazioak egiteko beharrezkoak dira.

*ACUBI Bidasoako Kontsumitzaileen
Elkarteak Irungo Udalaren diru laguntzaz
argitaratutako testua*


Interesa, emozio atsegina, nola bideratu

Interesa emozio atsegina da eta emozio atsegin guztien antzera, gure zorientasuna edo ongi sentitzea bideratzen du. Interesa emozio motibatailea da, plazerezkoa, egin beharrekoa pozik eta gogoz egitea bideratzen duen emozioa. Beraz, gure eguneroko bizitzan integratzen ikasten badugu, gure ongizatea bideratzen dugu.

Eguneroko eginbehar edo ardurak gogorik gabe, makal edo goibel egin beharrean, zergatik ez pozik eta interesez egiten saiatu? Egin behar baditugu, zergatik ez modu positibo eta interesez egin?

Aldaketak jakin-mina bideratzen du, eta jakin-minak, interesa. Interesak esplorazioa sustatzen du; miatzeko gogoia, gauzak manipulatzeko, ikertzeko irrika... Interesean sortzaile izateko eta ikasteko gogoia dago, eta gure trebetasun eta gaitasunak garatzen ditu.

Zerk pizten du pertsonon interesa? Pertsona guztiak ezberdinak garenez, bakoitzari gauza ezberdinak interesatzen zaizkigu. Gure nortasunak, gustuak eta bizi-



pen ezberdinek eragin handia dute. Baina interesa, emozioa den heinean, gertaera baten aurrean piztu egiten da eta gure baitan motibazioa eta poza sortzen du. Beraz, mezuak edo eginbeharrak nola bideratzen edo aurkezten ditugun zeresan handia dute. Adibidez:

Donostiara mandatu bat egitera joan behar dugu eta haurrei mezua adierazi behar diegu. Azter dezagun, adibide honetan, mezua adierazteko moduak zer-nolako emozioa sor dezakeen haurrengan:

- Bihar goiz altxatu eta Donostiara joan behar dugu kotxeko giltza hartzera.



• Biharko badut plan polit bat. Goiz altxatuko gara eta tailerrera lagunduko nauzue, gure kotxerako giltza baten bila. Han kotxe pila bat ikusiko ditugu, beharbada guztiak ikusi eta gehien gustatzen zaizuenen sar gaitzke.



Galdetuko diogu hango nagusiari ea gidariaren lekuan pixka bat ibil zaitezketen? Zein ongi, kotxe baten barnean sartzeko aukera badugu!!!

Pertsona guztiak ezberdinak gara; baina... lehen adibideak interesa sortzeko aukera gutxiago du, ezta? Bizimodu interesgarria duenak, bizitza abentura bat bezala ikusten du; beti badago zerbait berria egiteko edo ezagutzeko, beti egon daiteke zoratzen edo harritzen gaituen zerbait. Interesaren bidean gaudenean gertaerekin dibertitzeko prest gaude, gauza txikiekin gozatzeko eta harritzea.

Haur eta gazteei zer nahi duten edo zer duten gustuko galdetu behar zaie. Oso ideia onak izaten dituzte beraien interesetatik abiatzen direnak; horrela, motibazioa bideratuta dago. Interesak bideratuta ikasten dugunean, nahi dugulako ikasten dugu, ikasteak badu funtzioa, badu erakargarritasuna.

Idea hauekin gogoeta bat azalduko dizuet:

Gaur egungo hezkuntza interesaren motibazioan oinarritzen al da? Oso urrun gaude, ezta? Haur eta gazteak eskolara hasteko motibazioa ikusi besterik ez dago. Zein da haur gehien motibazioa edo interesa? Patioa eta lagunekin egotea. Zein haur edo gazte dago datorren urtean zein gai edo gauza berri bat ikasiko duen irrikaz? Nola ez da egongo, bada, porrot eskolarra, gure inguruko eskoletan? Nola ikasten da ingelese, adibidez: ikasi behar delako ala ingelese jakiteak mundu berri bat irekitzen digulako (abestiak uler daitezke, atzerriko jendearekin komunika gaitzke...)? Helburu zehatz bat

izateak interesez ikastea bideratzen du.

Maiz esaten dugu helduak garela eredu. Baina hezitzaile edo gurasook egiten al dugu lana motibazioz eta interesez? Gauza berriak bilatu, haurren intere-

resaz kutsatu, elkarrekin gauzak eraiki, elkarrekin gauzak ikasi... Guretzat ere lanera joatea abentura ederra izan daiteke. Zenbat lagundu ditzakegu egunero ikusten ditugun haur edo gazte horiek? Guk haiengan dugun eragina handia denez, eman diezaiegun eragin positiboa, ezta? Zenbat on egin dezakegun! Eta zein ongi sentiarazten gaituen gure lana ongi egiten dugula edo ongi egiten ari garela sentitzeak!! Hor egon daiteke guraso eta hezitzaileen interesa eta motibazioa ezta? Badakit ez dela erraza, haur edo gazte asko ditugu ikasgeletan baina egunero haur bakoitzari eskain diezaiokegu tartetxo txiki bat, kontutan ditugula adieraziz: bere izenaz deitu, ongi egitean irribarrea edo keinu bat eskaini, ideiak baloratu, haien ametsetan sinetsi, esfortzua baloratu, aditasunez entzun...

Interesa emozioa da, eta emozioa den heinean senti daiteke gure ingurukoa ezagutu, den bezala onartu eta harekin arduratzen bagara. Gizarte kontsumista eta materialista honek gauza material asko edukitzea ahalbidetzen du; ondorioz gauza gutxi piztu dezake gure interesa. Baina egunerokotasunean hamaika gauza txiki daude harridura eta interesa bideratzen dutenak. Beraz, tentuz ibili, arreta ipini eta gure inguruan zenbat gauza eder eta interesgarri dauden sentitu. Gozatu, lagunei eta besteei interesa piztu. Merezi du, ezta? Behin baino ez gara biziko.

**KUTTUN AHOLKULARITZA
PSIKOPEDAGOGIKOA
MAPI URRESTI ORTIZ**

Oporraldiko lehenengo astean gure ohantzea uztea ohiko bihurtu zaigu bikoteari eta bioi. Uztailean *Titin* pilotaria eta Logroño izan nituen hizpide. Bada, hara, Errioxara eraman gaitu patuak.

Gaur egungo terraza batetik

Garai batean hatza mapa gainean jartzen genuen nola, hala nabigatzen dugu egun sare birtualean. Sartu gara Sarean, eta luzaz murgildu gabe, nondik norakoak zehaztu ditugu aurten ere. Halabeharrak Errioxara eraman gaitu, Lau gau baino ez ditugu egin “gure”tik kanpo. Ezkarai herrira joan gara eta bertatik bertara ibili.



Ezkarai bederlatzi *aldea* edo herrixka ditu. Altuzarra eta Zilbarrena –hauek hutsik daude–, Aiabarrena, Azarrula, Posadas, San Antón, Turza, Urdanta eta Zaldierno dira herrixkak.

Zaldiernoko Río Zambullón landa-turismo etxean ostatu gara. Bailara zeharkatzen duen Oja erreka jaisten da Zambullón errekaosta. Ojak berriz Ebron isurtzen ditu urak. Gaztelako –Burgos– lurrekin muga egiten duen Sierra de la Demandara igo gara egun batean, eta Arabako nahiz Nafarroako mugetaraino –Bianaraino– hurbildu bestean. Ebroz iparraldeko Laguardia herriraino iritsi gara horietako batean. Herri ederra, Laguardia. Muino batean altxatzen da gailen, harresiek bildua eta babestua.

Erromatar inperioaren garaia gogoratu ditugu: mahastiek eta gari soroek liluratu gaituzte, baita hauetako uztak biltzen dituzten upategiek eta sotoek txunditu ere; nekazal *terrazza* franko tarteko direlarik. Ebroren magalera zabaltzen diren lurraldeek berezko jite amankomuna

gorde dute denboraren joan-jinean. Jite naturala. Hots, gauza bat begiratzen zait naturaren bilakaera eta bestelakoa aldian aldiko politikaren garapena –edo halabeharra–. Ezkaraiko Zaldiernon ostatatuak izaki, Errioxan ginen. Laguardian ginela, berriz, Euskal Herrian. Karrikaz karrika

ibili gara, tokiko jite ideologikoen ikurrak begiztatu ditugu. Jeltzaleenak eta independentzia zaleenak kausitu ditugu agerikoenak: “Independentzia” edota “Arnaldo askatu”.

Terraza hitzaren jiteari eta bilakaerari segida emanez, terraza batean eseri gara. Turisten modura gu ere. Nolaz, bestela? Parez pareko turista batek Errioxako *El Correo*ren orriak astindu ditu eta Antonio Basagoitiren hitzak irakurri ahal izan ditugu: “*No podemos permitir que nos lleven a la aldea prerromana*”. “Gure” PPko burua Bildu koalizio politikoaz mintzo zaizkie jeltzaleei eta sozialistei.

“Hitz bortitzek indarrezko ekintzak sorrarazten dituzte (...). Laguardiako bizilagunak ‘gure takoak’ izatea desiratzen dut, eta berek horrela aukeratu dutelako. Areago, berezko jite edo izaerakoak izan daitezen...” pentsatu dut eta halatsu erran ere bikoteari. Gaur egungo *terrazza* batetik, erran ere.

MIKEL ASURMENDI

Epika eta Lirika. Izan vs Egon. Pika eta Ebats

Lemizkoz (lehenbizi-koz) aitor dezadan titulu bera untsa endelegatu gabe hasten dudala iruzkin hau. Giblekoz aitzina. Bukaerakoaz amaieran aipatuko dut, eta beste delakoari buruzkoa, hots.

Hazkurria funtsezkoa dugu bizitzeko, baita funtsezkoa ere Joxemiel Bidadorren poesia ulertzeko. *Hutseanikoak*, berriz, iradokizun gisara hartzen diot Bidadorri. Bere abizenak legez, poesiaz elikatze hainbat kontu eta zio iradokitzen dizkit *hutseanikoak*.

Bertsotan ezinean –*Xalbadorren* maneran, demagun– bere barne etsia –eta hesia– urratzen du poetak. *Lemizkoz* –Joxemiel Bidadorrek izkiriatu gisan– arauak –eta hesiak– urratzen hasten baita poeta, hitz neurtuen mugetatik aske, hitz laueta. Barneko harrarekin borrokan, bere beste ni-arekin dihardu eleketan: lohia eta hordia iragan ditu poetak. Orekan ibili aldera betiere, identitate gabetasunaren *lanturua* jasan du, hiriaren morrontza –aitaren etxerik gabe dabil munduan– gizonkiaren plazerra eta desplazerraren porrota eta egungo (euskal) poesiaren *Niaren* proiektzio faltsua agerian utziz.

Barneko etsia urraturik, kanpo etsiaz dihardu buru-belarri segidan. Hari jarraikiz hauxe ikasi diot: jaioz geroztik heriotzari buruz tai gabe abiatu, buru-belarri ezpalkatzen ditugu



Liburua: *Hutseaniko hazkurria*
Egilea: Joxemiel Bidador
Argitaletxea: Pamiela

memoriaren barruan aterpetutako oroitzapenak. Sekula baino gehiago memoriak elikatutako izakariak baikara gaur egungo munduan. Zoriona merke saltzen zuen jendarte-merkatu honetan honen alternatiboa izan zaitezke, baina libre ez.

Barne zein kanpoko etsia mendera ezinak direla onarturik, historiaren harrobia zama kargaturik, munduan jarraikitzen ausartzen da poeta, oldarkor: giblekoz aitzina, ezkortasuna onartzen du –etsipena nagusi izanagatik errealitate gordinari aitziz eginez– naufragoa izaki. Heriori erregu egiten dio, baikor egin ere, jakinik ezin dugula harengandik libratu, jakinik ere inspirazioa ez

dela nahikoa poema onak idazteko, poema onenak idatzi gabekoak baitira. *Hutseaniko* geratutakoak agian, bidezidorretan biltzen direnak –edo bide dorretan geratzen direnak–; *Bidadorrean*, naski.

Eta beste azkenik: Garañoko gatazkaren (bart) bezperan egin besta isilean –*Bidadorrean*–, andrearen eta desgizonaren gauzatzea burutuko dugu, naski. *Pika eta ebats / pika bietan eta ebats / pika bietan eta ebats / pika bietan eta ebats / ...ezker eta eskuin / ezker eta hiru / erdizka eta hiru...*

Epika eta Lirika. Izan vs Egon. Pika eta Ebats...

MIKEL ASURMENDI

k u l t u r a g e n d a

Urriak 16



- Amaia KZn, 20:00etan Boliviako San Ignacio de Moxos Orkestraren kontzertua.

Urriak 14

- Junkal parroki-elizan, 20:00etan, Mario Ciferriren organo kontzertua.

Urriak 22 eta 23



- Amaia KZn, 19:00etan, G. Verdiren *Il Trovatore* opera. Antolatzailea: Luis Mariano Lirika Elkarte. Eszena zuzendaria: François Ithurbide. Musika zuzendaria: Aldo Salvagno. Sarrera: bazkideek, 24 euro; bazkide ez direnek, 30.

Done Jakue Astea Irunen

- **Urriak 15, 20:00etan**, Amaia KZn, *Folk Euskat!* kontzertua, Iparvent taldearen eskutik. Taldeak Euskadi, Okzitania, eta Kataluniako musika, Pirinioetako musika, alegia, eskainiko du kontzertu honetan.



- **Urriak 16, 10:00etan**, Behobiko zubitik, Santiago bidearen zati batetik, txango gidatua. Aitor Puchek azalpenak emango ditu.

- **Urriak 19, 19:00etan**, Amaia KZn, ikus-entzunezko hitzaldia, Aitor Puchek aurkeztua. Izenburua: *Toponimia caminera en el Bajo Bidasoa*. Sarrera: doan.

- **Urriak 20, 19:00etan**, Amaia KZn, pelikula emanaldia: *The way. El camino*. Zuzendaria: Emilio Estevez. Sarrera: doan.

- **Urriak 21, 19:00etan**, Amaia KZn, hitzaldia eta ikus-entzunezkoa. Izenburua: *Simbolismo esotérico del Camino*. Hizlaria: Carlos Galindo. Sarrera: doan.



- **Urriak 23, 9:45ean**, Hendaiako San Bizente parrokiatik irtenda, ibilaldia Santiago Bidearen zati batetik, Luis Toribio historialariak gidatua.

Urriak 11-23

- Euskadiko Kutxan, Eduardo Padualesen margo erakusketak.

**Urriak 26
Azaroak 6**

- Euskadiko Kutxan, Quique Escalanteren oroimenezko argazki erakusketak, Alardeko Batzordeak antolatuta.

Urriak 14

- Amaia KZn 20:00etan, Cinema Paradiso. Rodrigo Cortes zuzendariaren *Buried* pelikularen emanaldia.

**Irun Hiria Musika
Banda**

Irun Hiria Musika Bandaren entseguak:

Noiz: Astearte eta ostiralean, 20:00etatik 21:00etara.

Non: Ama Miraritakoaren kapera

Udal liburutegiko ekintzak

- **Urriaren 17an, 19:00etan**, LIBURU FORUM tailerra. Gaia:

Clarissa Pinkolaren "Mujeres que corren con lobos".

- **Urriaren 17an, 19:30ean**, NIA-REN IDAZKETA TAILERRA.

- **Urriaren 18an, 19:00etan**, IRAKURKETA TAILERRA, Mertxe Trantxeren eskutik. Gaia: Ann Radcliffe-ren *Los misterios de Udolfo*.

LITERATUR MINTEGIA

- **Urriaren 20an, 18:00etan**, Andrei Tarkovsky-ren zinearen inguruko gogoetak.

- **Urriaren 27an, 18:00etan**, literaturaren historiako emakumezko pertsonaiak.

- **Urriaren 26an, 19:30ean**, Unamunoren heriotzaren 75. urteurrena gogoratzeko egitarauaren barruan, hitzaldia.

- **Urriaren 26an**, LIBURUTEGIAREN EGUNA. Girotze ekitaldiak.

- **Urriaren 31n, 17:30ean**, POESIA TERTULIAK Jesus Rodriguezen eskutik. Gaia: R. M. Rilke.

IPUIN KONTALARIAK

- **Urriaren 19an, 17:30ean**, haurrentzako ipuina, Virginia Imazek kontatua. *Monstruoak bizi diren lekua*.

- **Urriaren 26an, 17:30ean**, haurrentzako ipuina, Rakel Imazen eskutik. *Cuentos de la bruja Brunilda*.

- **Urriaren 27an, 19:30ean**, ipuina helduntzat. Diego Calavia. Ipuina: *Vivir del cuento*.



MENDIEXPO OUTDOOR EXPERIENCE

MENDIEXPO OUTDOOR EXPERIENCE outdoor kiroleko ekintza berria da.

Lekua: Ficoban
Noiz: Urriaren 30ean eta 31n eta azaroaren 1ean.



Mendiexpo kanpotik eta barrutik berri da.

Edizio honetan, argi bereizten dira erakusketa-lekua eta gune ludikoa. Gainera, kalitate handiko jardueren aldeko apustu sendoa egiten da.

Mendiexpo Outdoor Experienceren barruan munduko Mendi Zinemaldirik ospetsuena burutuko da: BANFF MOUNTAIN FILM FESTIVAL WORLD TOUR.

Adour Bidasoa margo erakusketa



Adour Bidasoa Margo Lehiaketara aurkeztu diren lan hautatuak osatzen duten erakusketa.

Lekua: Amaia KZ.
Inaugurazioa: Urriak 8.

FAMILIAOLA

Irungo Udalak Familiaola jarduera-programa antolatu du, familian euskaraz aritzeko aukera gutxi dutenentzat.

Nori zuzendua: 2-12 urte bitarteko haurrek dituztenei.

Noiz: urrian, azaroan eta abenduan.

Egipto Oiasso museoan



EGIPTO: BEGIRADA ERROMANTIKOA erakusketa.

Noiz: ekainaren 24tik azaroaren 20ra.

Non: Oiasso Museoan

Orduetgia: asteartetik larunbatera, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.



Gipuzkoa TB Txingudik
Bidasoaldean % 100eko
estaldura du

Kontsultak edo instalazioak
egiteko:

Ilargi Antenak

943 64 50 33



txingudi



Biltegi eta bulegoak:
Txirrri Maleo 4 - 20100 Errenteria

Dendak:
San Francisco, 15 - 20002 Donostia
San Francisco, 24 - 20002 Donostia
Duque de Mandas, 45 - 20012 Donostia
Isabel II, 15 - 20011 Donostia
Plaza Aralar, 1 - 20100 Errenteria
Avda.de Ezkiaga, 1A-1B - 20200 Baosain
Leizeaga, 3 - 20570 Bergara
Salvador Etxeandia, 6 - 20304 Irun

Erka Osagai Elektrikoak S.L.
c\ Salvador Etxeandia, 6 Behea
Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48
20304 Irun



- Industriako eta etxeko instalazio elektrikoak biltegia.
- Lanpara erakusketa.